

TOKIKOM

# Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria • 2013ko uztaila • 281. alea



**Bere ametsen  
atarian**

# topa eguna

Soraluze  
Irailak 28

emaiozu  
ba**lorea**

euskalduntasunari

plazari

mugimenduari

## 11:00 HARRERA

Goizean  
UMEEN HIRIA  
BERBA PROBAK  
ANDRABANDA FEMINISTA  
KANTU JIRA

14:30 HERRI BAZKARIAK  
topagunea.org/topaeguna edo  
herriko euskara elkartera jo

Bazkalostean  
IRRIEN LAGUNAK  
KULTUR GINDAK  
HEZITZAILEEN ARTEKO JOLASAK  
KALEJIRA

## 18:00 EKITALDI NAGUSIA

Iluntzean  
XERO XIETTE erromeria

22:30 KOKEIN + GOSE kontzertua


## Antolatzaileak:



## Babesleak:



## Laguntzaileak:



*Egun osoz edari eta talo txosnak!!*

# Ni banaiz, gu bagara, Euskara izango da. Euskara gu gara. Bagara?



Nerea Mendikute

Oihane Vila

**K**aixo Oihane.  
Zer moduz? Duela aste batzuk, Mondragon unibertsitatean entzun nuen hitzaldiak zer hausnartu eragin zidan. Bertan, hizkuntzaz jardun zuten esanez, hitza edo hizkuntza mendea eta segundoa gurutzatzen dituen lekua dela, hala ere, askotan ez gara kontziente zein den gure hizkuntzak duen bizia eta indarra. Izan ere, hizkuntza honek mendeetan zehar oztopo sozial eta politikoei aurre egin behar izan die. Orain, gure ahoetan hara eta hona ibiltzeko.

**“Askotan  
ez gara kontziente  
zein den gure hizkuntzak  
duen bizia eta indarra”**

Hizkuntza hau orain gure ahoetan erabiltzeko, gure senide eta familiek mende bateko borroka egin behar izan dute. Frankismoan, erregimen horren debekuei bizkarra emanez, isilpean lehendabiziko ikastolak sortu zituzten. Eta poliki-poliki euskal gizartearen indar eta kemenari esker, ikastolen mugimendua sendotu zen eta beraiei esker, guk beraienarekiko oso desberdina den errealitate bat bizitzeko aukera izan dugu, hau da, D ereduan ikasteko Sorraluzeko Ametsa ikastolan.

Baina orain, informazioa abiadura bizian igarotzen den gizarte honetan, badirudi gure hizkuntzak mendeetan zehar igaro behar izan dituen oztopo guztiak ahaztu ditugula. Ondorioz, gure egunerokoan momentu edo segundo batetan, guk gure hizkuntzarekiko hartu dezakegun jarrerak, izugarritzko eragina izan dezake bere normalizazioan. Zuk zer uste duzu?

**K**aixo Nerea:  
Ni ere hitzaldi berebetean egon nintzen eta, hasiera batean pentsatzen nuena baino gehiagorako balio izan didala konturatu naiz. Egia da, gure arbasoek asko borrokatu dutela euskal kultura ezartzeko, eskola euskaldunak sortzeko, kalean euskaraz hitz egin eta entzuteko... Hortaz, guk ere bide hori egiten jarraitu behar dugu, baina, zer da euskalduna izatea? Lau hitzetan definituko nuke: euskaraz mintzatzen den pertsona.

Zuk esandakoarekin guztiz ados nago, gure jarrerak izugarritzko eragina izan dezake hizkuntzaren normalizazioan. Gaur egun, euskal gizartea gero eta anitzagoa da, jatorri ezberdinetako pertsonak osatzen dutelako. Horregatik, gero eta ohikoagoa da, jatorri ezberdineko pertsona bat guregan hurbiltzea. Kasu horietan, gure jarrera izan liteke euskara ez den beste hizkuntza bat erabiltzea berarekin komunikatzeko. Askotan uste dugu, beste herrialde batekoa izateagatik ez direla gai euskaraz mintzatzeko, ezta ulertzeko ere, baina, hori ez da egia. Gero eta perfil anitzagoko

**“Estropezu egin aurretik  
gure ama hizkuntzan  
izan behar da  
gure lehenengo hitza”**

pertsonak dira euskara ikastera ausartzen direnak, hala ere, pertsona horiek zailtasunak izaten dituzte ikasten ari diren hizkuntza praktikatzeko. Askotan uste dugu pertsona horiek ez direla gai euskaldun zahar bat bezala hitz egiteko baina maiz, beraiek dira lezioak ematen dizkigutenak. Beraiek baitira, kalean euskaraz hitz egiteko aukerarik izan gabe aurrera egiten dutenak euskararekin. Beraz, estropezu egin aurretik gure ama hizkuntzan izan behar da gure lehenengo hitza eta besteak ez baldin badigu ulertzen, orduan egingo dugu bestearen hizkuntzan. Ez ditzagun galdu hainbeste borrokatu dugun guztiagatik.

## Gutunak

Iñigo  
Uribetxebarria

### Tongoa ez bada zer izan da festetako kartel aukeraketan?

Ez ginan asko izan festetako kartel lehiaketan parte hartu genuenak, gutxi hoietatik bakarra irabazle izateko. Lehenik eta behin zorionik beroenak irabazleari. Ez dut ordea zorionik izango epaimahaiarentzat. Aukeratutako kartelak guztiz gustatu ez eta egileari umearen arropa kolorea aldatzeko eskatu bait zion beste partehartzaileekiko inongo errespeturik izan gabe. San Ferminetako modaz jantzitako haurriari Soraluzeko koloreak jarriarazi zion epaimahaiak. Horrela, nahi zuten kartel txukun eta politta lortuz. Datorren urterako hobe dezue lehiaketa atera orde zorbaiti egiteko eskatzea. Behintzat tongorik ez da izango.

### Oharra:

**Datorren alea oporren aurreko azkena izango da eta Santiago – Santa Ana jaietako argazkiekin osatuko dugu; zorion agurrei eta eskelei dagozkien tarteak bakarrik mantenduko dira.**

## Bittartetik



## Toponimia

Inoiz agertu dut ez zaidala Plaentxia izena gustatzen. Hainbatentzat betidaniko izena bada ere, ez ditu 40 urte. Nire gurasoen belaualdikoek Plazentzia esan dute beti, plazeretik datorrena.

Nire kalearen izena Gabolatx izaretik Gabolatx izatera pasatu zuteanean ez nuen ulertu. Estetika aldatuta bat deritzot, batzuen Donosti bezala. Jatorria sasoi bateko Gau Olak zirela kontutan hartuta hobeto legoke Gabolak edo Gau Olak izena.

Nire arbasoen bila erregistroetan ibilia naiz eta lan horretan grafiaren garrantzia itzelaz sarritan ohartu naiz. Zein lagungarria den jatorrizko izenak mantentzea eta zein kaltegarria nahikoa arrazoitu gabeko aldatetak.

Eta herri barruan bueltatxo bat ematean galdera berri bat sortu zait. Zergatik dago Santana kaltetik Atxurirako oinezkoen zubia Errekaldeko Zubia bezala izendatuta? Baita Atxuriko Parke azpian dagoen iturriak ere Errekaldeko Iturria izena darama. Etxean zenbakiei begiratzen badiegu Zaharren Egoitzarako aldaparen hasierak mugatzen ditu Atxuri eta Errekaldea.

Eta berriro herriaren beste aldera heltzean hor ikusi ditut Gerra Zibileko golpisten aldeko "heroiak" zerrendari begira gelditu naiz kainoi fabrikaren aurrean pasatzean.

**laibi**  
ELECTRICIDAD

Mendiola industrialdea, 13  
20590 SORALUZE (Gipuzkoa)  
Tel. 943 75 12 69 + 616 168 227  
Fax. 943 75 23 41  
gabilondo@laibi.net • www.laibi.com

**Txoko kafetegia**

Kafe ederra hartzeko  
txokorik onena!

Kalebarren 22. beheko,  
Soraluze, Tel. 943 75 17 89

# “Epe luzera, musikaz bizitzea gustatuko litzaidake”

**Sara Nieves**  
Musikaria



Zortzi urterekin jaso zituen gitarra klasikoko lehen eskolak Sara Nievasek (Soraluze, 1988) eta ordutik, ordu asko pasatu ditu, gitarra eskuan, trebatu eta trebatu. Komunikazio karrera bukatuta, lehiaketa bati esker musika munduan profesional moduan aritzeko aukera izan du eta irailan bere lehen maketa kaleratuko du *Timbawa. Señoritas con alas*. Madrilen bizi da eta oporrak direla eta, Bilboko eta Eibarko eszenatokietan ikusi dugu azken asteotan. Malagarako bidea hartu aurretik ekarri dugu gure lerrootara.

**Soraluzetik Madrilerara eta handik Malagara. Musikari profesionala izateko herritik irten behar?**

Kasualitateak eta zorreak bultzatuta nago orain Madrilen baina argi dut musikalki aurretik egindako lanak atezabaldu dizkidala. Zortzi urterekin hartu nituen gitarrako lehen eskolak eta urte mordoan eman nituen klasikoan formatzen. Denbora batez hobby bihurtu eta komunikazio karrera Kalifornian bukatzea erabaki nuen. Handik bueltan, lana topatu ezinda nenbilela, Alhambra Garagardoak markak martxan jarritako le-

*“Timbawa. Señoritas con alas maketan euskarazko kanturen bat izango da”*

hiaketa batean eman nuen izena. Aukeratu izan nintzen eta harrezkero, beste hamaika gazterekin aritu naiz Madrilgo areto ospetsuenetan emanaldiak eskaini eta Malagako estudio batean abestiak grabatzen.

**“Soraluzera etortzea gustatuko litzaidake, nahiz eta herrian kantatzeak apurua ematen didan”**

**Esperientzia ahaztezina hasiberri bantentzat. Zertan aberastu zaitu?**

Maila eta ospe handiko musikariekin lan egin eta formatzeko aukera izan dut. Epe luzera, musikaz bizitzea gustatuko litzaidake eta esperientzia honekin aukerak baditudala ikusi dut. Gogorra ere izan da, ez pentsa! Ezezaguna naiz oraindik Madril aldean eta konpetentzia handia dago, arrotza da, maite ditudanak urrun ditut... Baina zaila dudala esaten didatenei, gaur egun zaila zer ez den galdetzen diet nik. Ausartzea da kontua!

**Pop-rocka lantzen duzu. Zerk bereizten zaitu gainontzeko abeslarietatik?**

Konposatzea pasioa da niretzat eta kantatzen ditudan abesti guztiak nik sortutakoak dira. Oso pertsonala da nik egiten dudana,

ez zait bertsoiak interpretatzea gustatzen. Freskotasuna musikari baten esentzia da eta askok, esentzia hori alde batera lagatzen dute ospe handiagoa bilatu asmoz.

**Autoekoiztutako lana kaleratuko duzu irailan. Zerbait aurreraterik?**

*“Timbawa. Señoritas con alas”* maketak 60. hamarkadako popa, reggaea, countrya... batuko ditu eta euskarazko kanturen bat izango da.

**“Urtebetez aritu naiz Madrilgo areto ospetsuenetan emanaldiak eskaini eta Malagako estudio batean abestiak grabatzen”**

**Orain Malagara zoaz. Zer duzu buruan?**

Flamenkoarekin uztartutako zenbait abesti grabatu eta bolo batzuk eskainiko ditugu Andaluzian. Irailan maketa argitaratu eta promozio lanari ekingo diogu. Soraluzera etortzea gustatuko litzaidake, nahiz eta herrian kantatzeak apurua ematen didan. Nire kantak, You Tube-ko Timbawa kanalean edota timbawa.wordpress.com orrialdean entzun daitezke.



**DIN arauak jarraituz  
eta zehaztasun handiz egindako torniluak**

T. 943 75 17 36 / 1803      Industrialdea 20 - 21  
F. 943 75 22 95              50 Posta Kutxatila  
20590 Soraluze



**TALLER MEKANIKOA**

- Mekanizatutako piezak
- Erremintak
- etab.

Tel. 943 75 21 42 • Fax 943 75 24 12  
Mendiola industrialdea 14- 4. Nabea; 161 P.K.  
marian@albisua.e.telefonica.net  
20590 SORALUZE

# Euskal Herriko euskara elkarteen topaketa Soraluzen

Irailaren 28an euskaltzaletasunaren erdigune bihurtuko da Soraluze. Euskaltzaileen Topaguneak deituta Euskal Herri osotik etorritako euskaltzaleak batuko dira Topa Egunean. Euskaltzaileen Topagunea

Euskal Herri osoan barrena zabaldurik dauden 90 euskara elkarteek, eta hauetako bazkide diren hogeita mila euskaltzalek baino gehiagok osatzen dute. Pil-pilean ere Topaguneko kide da, bere 330 bazkideekin.

## Jai erraldoia euskaltzaletasunaren bueltan

Topaguneak, Pil-pileanek eta Deba bailarako gainerako euskara elkarteek buru belarri dihardute egunaren antolakuntzan. Irailekoa "euskaltzaileen jai erraldoia" izatea nahi dute. Aurerratu dutenez, egun guztian zehar izango dira ekitaldiak: musika kalez kale, puzgarriak, kantu kalejira, euskararen gaineko mezuak plazaratzeko gunea, kultur emanaldiak, jolasak, herri-bazkariak, kontzertuak... Pil-pileanek eguna auzolanean antolatzeko gonbitea egingo die soraluzetarrei eta herriko elkartei. Irailean hainbat bilera egingo dira horretarako.



Ekainean Elgoibarren egindako Mintza Eguneko bazkaria.

## Etxe-kaleratzeek gora egin dute azken hilabeteetan

Azken sei hilabeteotako balantzea aurkeztu zuten prentsaurrean Debabarrena Stop Kaleratzeak plataformak, eta azaldutakoaren arabera, "benetan larria da egoera Debabarrenean". Zehazki, hamazortzi familien kasua artatzen dihardute, horietako bat Soraluzekoa da eta herrian egindako jarraipenari esker, bankuarekin "akordio erreala" lortu dutela azaldu dute. Hala ere, Soraluzeko kasua "salbuespena" dela eta, "ezkutuko kasuak asko direla" ohartarazi dute. Zailtasunak dituztenei lehenbailehen kontaktuan jartzeko eskatu diete, 627 934 675 telefonora deituta edo stopdesahuciosbajodeba@gmail.com helbidera idatzita.



## FotoNotizia

Iturria: Mirela Lamariniano



## Udako abenturetan murgilduta

Motxila ilusioz beteta abiatu ziren herriko sei gazte, Euskal Herriko beste hogeita lagunekin batera, Garaioneko udalekuetara (Araba). Sormenaoinarri hartu eta hezitzaileek prestatutako tailerretan "hezkidetza, aisialdia eta gazteen autonomia moduko baloreak" landu dituzte. "Landako uretan freskatu, izarren azpian lo egin eta batez ere, lagun ugari" egin omen dituzte.

## Ndank elkartearen postua

Bergarako Ndank Ndank taldeak bertako produktuak saltzeko postua jarriko du jaietako zapatuan. Batuko den dirua Senegalgo Dionewar herriko eskolako hesia eraikitzeko erabiliko dute. Ndank elkartea senegaldarrek eta euskal herritarrek osatzen dute eta kooperazio egitasmoez gain bi herrialdeotako pertsonen arteko harremanak bultzatzen dituzte.



**Belarrak**  
**Loradenda**  
 eta  
**belardenda**  
 T. 943 75 30 11

**BOLIA**  
  
**Taberna**

# 10 ARRAZOI

## herriko dendetan

### erosteko

**1** Aberastasuna  
herrian gelditzen delako

**2** Euredako garrantzitsuak  
garelako eta gizatasunezko  
tratu ematen digutelako

**3** Herrian LANPOSTUAK  
sortzen dituztelako

**4** GERTUago daudelako  
eta kutxatu barik  
egin ditzakezulako  
erosketak

**5** Gure auzolagunak direlako

**6** Herriari BIZIA  
ematen diotelako

**7** Kalitatezko produktuak  
dituztelako

**8** ABERASTASUNA banatzen  
dutelako, merkatalgune  
handiek ez bezela

**9** Herriko ekimenak  
laguntzen dituztelako  
(jaiak, kirol probak,  
elkarteak...)

**10** Diru nahikorik ez  
daukagunean ere  
eskatutakoa ematen  
digutelako



**PIL-PILEAN**  
EUSKARA ELKARTEA

## UZTAILAK 24 (ASTEAZKENA)

20:15tan (Txupinazoaren ondoren)  
Herrira gunearen irekiera

# Soraluzeko jaixak Herrira gunean

## Herrira eguna

### UZTAILAK 26 (OSTRALA)

11:00tatik aurrera. Material ta errifa salmenta

14:30tan Elkartasun bazkaria

Ondoren **HERRITARRIEN EPAIA** 

ARGAZKI HERRIKOIA + BERTSO RAP

18:00tan Kalejira urdina (zatz kaniseta urdinez!)

20:00tan Plaza Zaharrean elkartasuna margotu

20:45tan Azken Barixaku elkarretaratzea Plaza Zaharrean

23:00tan Kontzertuak gaztetxian

GOIENETXE ANAIK (RAP) + FUN AND GO (ERROMERIXIA)

24:00tan Kontzertuak zubiko txosnetan

ADABEGI



## UZTAILAK 28 (IGANDEA)



HARRERA eguna

Txosna zabalik **goizeko 8:00tatik aurrera.**

\*Egun guztian zehar pintxo, razio ta bokata goxo-goxoak!

\*U26-ko bazkariko tiketak salgai Bolia, Gaztelupe ta Arranon



Soraluzeko  
Kooperatiba  
Elkartea

1910etik

943 75 13 45



**MENDIZABAL**  
okindegia

Kalebarren 10  
T. 943 75 20 91

Baltegieta 6  
T. 943 75 13 99

SORALUZE



**Loli Nieves García**

Santa Ana, 13 • SORALUZE  
Tel. 943 75 14 57 - 646 522 659  
E-maila: mdnievas@mgs.es  
www.mgs.es



Komertzioetarako web orriak disenatzen ditugu, kalitatezkoak eta merkeak. **70€**



**PASCUAL CHURRUGA, s.a.**

Hotzian eta beruan  
jotako tornilluak

Errekalde 21  
20590 SORALUZE

T. 943 75 00 06  
T. 943 75 16 00  
F. 943 75 24 61



CRISTIAN CORTES  
PEDRO MOREIRA

**soralur**

Igeltseritza eta pintura lanak

Tel. 616864464 / 667362957  
soralurc.b@hotmail.com



**TXURRUKA**  
JATETXEA

www.txurruka.com

943 75 15 81



**Udal zerbitzuetako udako ordutegia**  
Udako oporrak direla eta, Arane kiroldegia itxita egongo da uztailaren 25etik irailaren 2a bitartean. Jaietako txupina dela eta, 24an arratsaldeko 20:00etan itxiko ditu ateak. Ikastaroak irailaren 16an hasiko dira eta izen emateak irailaren 2tik aurrera egin ahalko direla jakinarazi dute. Udaltzainek berri, urte osoko ordutegi berbera mantenduko dute abuztuan ere, astegunetan 7:30etik 21:30era eta zapatuetan 7:30etik 19:30era. Jaietan ere halaxe izango da.  
Liburutegia itxita izango da uztailaren 31tik irailaren 2a bitartean

### Dolmenen Ibilbidea bisita abuztuan

Debanatura Elkarrekin Karakate-Irurutzeta mendilerroa ezagutzeko bisita gidatua antolatuko du abuztuaren 11rako (domeka). Parte hartzaileek euskal artzainen eta nomaden aztarnak jarraituko dituzte hiru orduko ibilbidean zehar, eta tartean, eskualdeko sagardoa, gazta eta ogia dastatzeko galdialdixoa egingo dute. Izen emateak 12 euro balio ditu (umeak debalde) eta Debanatura Elkartera deitu behar da 943 191172 edo 695 783656 zenbakira.

### Oregi eta De Cosen sariak

Eibarko Klub Deportiboak maiatzean antolatzen duen argazki rallyan bi sari eskuratu ditu Fernando Oregik. Digi-taleko modalitatean eta paperekoan lortu ditu sariak: bilduma onenaren bigarren saria lortu du bietan. Carlos De Cosek, ere bigarren saria eskuratu du Zumaiako udaberri lehiaketan.

Iturria: Fernando Oregi



## Irureko uren ardurak argitzeko eskaera Aldundiari

Astelehenean egingo den udalbatza- Arrean hainbat mozio bozkatuko dira. Tartean Aldundiari Irureko urak bideratzearen ardura norena den argitzeko eskatzen dion mozia bozkatuko dute. Hainbat azterketa egin ostean, oraindik argitu gabe dago Aldundiak, Jaurlaritzak eta udalak zein ardura dituzten gai honetan. Hori dela eta, udal gobernuak ardura horiek argitzeko eskaera bideratzeko erabakia hartu du.

Irureko mozioarekin batera, Lomce legearen aurkakoa, Stop Etxegabetzeak aurkeztutakoa, Txingudi GHKn sartzearen aurkakoa, Bakearen Aldeko Koordinakundeari egindako lana aitortzearen ingurukoa eta Kidetza elkarteak zaintza partekatuen alde egiteko eskatuz aurkeztutakoa bozkatuko dira.

### Behin behineko bi lanpostu

Bestalde, udalak behin behineko bi lanpostu betetzeko deialdiak egin ditu azken hilabeteotan. Bata brigadarako peoi lanak egiteko, eta bestea gizarte zerbitzuetako administrari lanetarako. Azken datuen arabera, Soraluzek bailara osoko langabezia tasarik altuena du %20,6arekin (%13,27koa da Gipuzkoako batzbestekoa).



Udaletxeko harrerako langileak.

## Gotzon Elizburu inputatu du Auzitegi Nazionalak

Ernai gazte antolakundeko lau kide inputatu ditu Madrilgo Auzitegi Nazionalak, tartean, Gotzon Elizburu soraluzetarra "terrorismoa goratzea" egotzita. Gazte Danbadan, Urduñan, egindako hitzaldian Xabier Lopez Peña zena aipatu eta "preso politikoa" zela aitortu izanagatik leporatzen diote "terrorismoa goratzea". Gotzonekin batera, Mikel Button, Mikel Moreno eta Irati Sierra gazteak ere inputatu ditu Espainiako fiskaltzak. Dagoeneko guztiek deklaratu dute epailearen aurrean. Gotzonek uztailaren 3an deklaratu zuen Jone Goirizelaia abokatuarekin eta hainbat herritarrek babestuta.



Elizburu abokatuarekin, Eibarko epaitegiaren atarian.

**Elizpe Hertz klinika**

Gure zerbitzuak:  
- Ortodontzia ikustezina  
- Implantak

DIHAINIKO BERRIKUSKETAK  
FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA  
KONPROMISORIK GABEKO AURREKONTUA

MUTUALIA, PADI (haurren arretarako hertz programa)

Tel. 943 75 25 67  
Elizburu 3 behe, Soraluze

**Etxabe Harategia**

**Euskal txahalkia Bildotsa**

Merkatu Plaza 6 - 7 Postuak  
T. 943 75 23 75

**Eloi Uriarte Diaz de Gereño**

# “Iheslariok ere pausoak ematea erabaki dugu estatuen immobilismoa hausteko”

Eloi Uriarte Diaz de Gereño (Soraluze, 1942). 1974. Urteko irailaren 11n ihes egin zuen herritik. Euskal Iheslari Politikoen Kolektiboaren mintzakidetza taldeko kidea da beste hamairu lagunekin batera.


Eloi Uriarte Miarritzen bizi da. 70. hamarkadan ETAko hainbat kide atxilotu zituzten Bilbon eta berak ihes egin zuen Ipar Euskal Herrira. Geroztik, bertan eman du bizitzaren zatirik handiena, bere emaztearekin, Izaskun Gantxegi eibartarrarekin. Ezagutu ditu Frantziak euskal iheslariak errefuxiatu politiko moduan onartzen zituen garaiak, eta gertu gertutik ikusi du GALEk bere lagunak zela hiltzen zituen. Behin eta berriz izan da atxilotua, konfinatua eta gartzelaratu Frantzian.

## Zelakoa da iheslari-bizitza?

Hasieran txoke izugarria da etxea lagatzea. Bizimodua berregin behar, zerotik hasi... Urterik gogorrenak GALEnak izan ziren, 80. hamardan. Frantziako polizia berak esan zidan "kontuz" ibiltzeko. Lana laga behar izan nuen, etxez aldatu... Telefonoak jotzeko beldurrez egoten ginen. Traumatikoa izan zen. GALa amaitu zenean Frantziak ezarritako deportazioak etorri ziren ordainetan. Beti bizi gara tentsiopean nolabait baina orain bizitza "normalizatu" daramat. Dena dela, Iparraldean geratu ginenok zortea handia izan dugu, ingurukoekin harremanetan jarraitzeko aukera izan dugulako. Etengabe bisitak jaso izan ditugu, eta horrek asko lagundu digu. Ezingo dut inoiz ordaindu herriaren zati garrantzitsu batek erakutsitako maitasuna eta begirunea.

## Zela daramazu herriminarena?

Askok galdetzen didate hori. Noski badudala herrimina. Berrogei urte banitu... baina hirogeita hamaika ditut, eta nere bizia hemen daukat. Herritik pauso batera bizi naiz, Euskal Herrian. Gustora joango nintzateke Soraluzera pote batzuk hartzera eta asteburua pasatzera, baina ez bizitzera.



Iheslarien kolektiboa osatu duzue. Zein da helburua?

Bai, kolektibo moduan antolatu gara, minzaketza taldea osatu eta zenbaitek pasaportea eskuratzeko pausoa eman dute. Derrigorrezkoa da pausok ematea estatuen in-mobilismoa hausteko. Pertsona asko daude inolako paperik gabe –tar-tean neu-, beste batzuk egoera oso larrian, laguntzarik gabe, osasun egoera kaxkarrean... eta horrek behalako irtenbidea behar du.

**“Ezingo dut inoiz ordaindu herriaren zati garrantzitsu batek erakutsitako maitasuna eta begirunea”**

**“Iparraldean iheslarioi erabateko babesa erakutsi digute eskuindarrenek ere”**

Ez du ematen estatuek borondate handirik dutenik?

Alde batetik beldurra ematen dit, alde baka-reko txarkeria eta eskakizunak bakarrik azal-erazten dituzte eta. Baina bestetik itxaropena dut nazioartearengan eta batez ere hemengo gizartearen presioarengan. Nire ustez kaleko presioa izango da gakoa egoera hau aldatzeko. Ezker abertzaletik kanpo dauden baina egoerarekiko sentsibilitatea daukaten pertsonak pausoa eman beharra daukate egoera aldatu dadin. Egoerarik txarrena presoena da eta espero dut Estraburgoko epaiak ere lagun-duko duela larri daudenak askatu ditzaten.

Presoentzako Nanclares bidea proposatu du Espainiako estatuak.

94an, Parisen nengoela, Espainiako polizia bat etorri zitzaidan, eta hegoaldera bueltatzeko aukera eskaini zidan erakundeari publikoki uko egitearen truke. Ezetz esan nio-nean ohartarazi zidan gauzak okertuko zirela niretzat, eta handik gutxira errefuxiatu estatua erretiratu zidaten. Horiez da gure bidea.

Iparraldean hainbat sektore politikotako pertsonen babesa jaso duzue.

Iparraldean iheslarioi erabateko babesa erakutsi digute, bai eskuindarrek eta bai alderdi sozialistako hainbat kidek ere. Horren adibide da Aurore Martinekin gertatu dena. Denek ikusten dute Iparraldea gunetik hutsa bihurtu nahi dutela. Hori dela eta, bat egiten ari dira ezker abertzaleak egin izan dituen hainbat eskakizunekin.

## HERRITARREKIKO ESKERRONA

Sociedad Deportiva Placencia-ko presidentea zen ihes egin zuenean, eta ezagun eta lagun asko laga zituen herrian. Ondorengo urteetan soraluzetar asko joan izan zaizkio bisitan, “baita beste pentsakera politiko batzuetako pertsona ugari ere” eta “inoiz ordaindu ezingo duen eskerrona” adierazi nahi die guztiei.

Bereziki gogoan du ihes egin ostean Txarape elkarte gastronomikoan hartu zuten erabakia: “baserritarrek bazkide izaten jarraituko nuela erabaki zuten, eta ez nuela ordaindu beharrik izango. Arriogain elkartearen ere urte askoan lagunek ordaindu zidaten bazkietza”.



Eloi eta beste hainbat soraluzetar Txokoko Agustin zenari egindako omenaldian. Sociedad Deportivako presidente zen orduan.

### KRONOLOGIA

**1974** ihes egin zuen Ipar Euskal Herrira.

**1976** Frantziako polizia atxilotu eta Baionako espetxean hiru hilabete preso. Ondoren, hiru hilabetez Yeu irlan bizitzera behartua.

**1989** Atxilotu eta bi egun gartzelan. Errefuxiatu estatutua.

**1991-95** Departamenduz departamendu bi urtean eta hiru urte Parisen. Errefuxiatu estatutua kendu.

**2001** Nazioarteko bilaketa agindua.

**2006** Atxilotu eta urtebete espetxean, Faisan kasuarengatik. Harrezkero epaiketaren zain.




1977an Ille Yeutik atera zirenekoa. Eloi ageri da, Jose Luis eta Manuel Makazaga hernaniarrekin batera. Atzean abokatua.

# Ingurumena

Natura ondarea eta kontsumo arduratsua lehenetsi dituzte herritarren foroan.

Ingurumen arloa izan da Alkarrekin prozesuaren baitan landu den lehen gaia. Maiatzean zehar egin diren herritarren foroan bi bilertan, gaiaren inguruko diagnostikoa aurkeztu, eta NATURA ONDAREA eta KONTSUMO ARDURATSUAREN baitako egitasmoak osatu dira. Abenduan egingo den foro orokorrean lehenetsiko dira gauzatuko diren egitasmoak.

*Oharra: Alkarrekin prozesuan jasotako ondorioekin Hirigintza Plana diseinatuko da 2014an. Plan horretan herriko lurzoru eraikigarrietan eraikiko denaren helburu eta nolakotasunak zehaztuko dira.*



## DIAGNOSTIKOA

### NATURA ONDAREA

Baso bidez baso autoktonoak berreskuratzeko egitasmoa, bide zaharrak eta mendigaineko BTT eta dolmenen ibilbideak, Deba ibaia berreskuratzeko Debegesaren programa, garbiketa kanpainak, espezie inbaditzaileak errotik kentzeko ekimenak eta uholde arrikuen kudeaketa, eta geologia aldetik herrian dagoen aberastasunaren ezezagutza.

### KONTSUMO ARDURATSUA

Murriztu eta berrerabiltzearen inguruan ezer gutxi, Debabarrenak Gipuzkoako birziklapen tasarik baxuena du %16 eta bosgarren edukiontzia jarri berria da.

### ENERGIA

Sologoeneko zentrala da energia berri-erregeneratzaileko eta ekoizten duen gailu bakarretakoa eta efizientzia energetikoari dagokionez LED argiekin udalak martxan jarri berri duen froga pilotua eta udal eraikinetan egingo den auditoria dira aipagarrienak.

### MUGIKORTASUNA

Bergara arteko bidegorriaren erabilera-indizea Gipuzkoako altuena da, gune historikoa oinezkoendako bideratu da, aparkalekuak baino auto gehiago dago herrian eta garraio publikoari dagokionez badira hutsuneak.

# Lehenetsitako Proiektuak

## NATURA ONDAREA

### 1. IBAIAREKIN KONTAKTUA BERRESKURATU

**Azalpena:** Garai batean ibairekin zegoen kontaktua berreskuratzea da egitasmoaren helburua.

**Ekintza posibelak:** baiarekin lotutako bizi-esperientzien eta argazkien bilduma osatu, uraren kalitatea zaintzeko neurriak, kirol erabilera, labadero zaharra berreskuratu...

### 2. MENDIBIDEAK BERRESKURATU

**Azalpena:** herriko mendibideak ezagutu eta berreskuratu.

**Ekintza posibelak:** bideak garbitu eta markatu, Sagar Errekako ibilbidea berreskuratu, dolmenen ibilbidea sustatu, iturriak txukundu, ibaiko harpasoak berreskuratu...

### 3. BASOBIDEZ EKIMENA ETA TURISMO NATURALA SUSTATU

**Azalpena:** Espezie autoktonoen landaketa eta turismoa bultzatu.

**Ekintza posibelak:** tokiko zuhaitzen landaketa bultzatu, lur jabeekin akordioak egin, ondare geologikoa aztertu eta ezagutarazi...

### 4. HERRI BARRUKO AISIALDIARAKO GUNEAK TXUKUNDU

**Azalpena:** Aisialdirako aproposak diren guneen zainketa eta erabilera bultzatu.

**Ekintza posibelak:** Ikastolako jolasgunearen erabilera berreskuratu, U-aren orubea...

## KONTSUMO ARDURATSUA

### 5. KONPARTITU, BERRERABILI

**Azalpena:** Jendearen kontzientziak landu.

**Ekintza posibelak:** pabiloi industrial eta lokalak berrerabiltzeko egitasmoa, autoak konpartitzekoa, bigarren eskuko gauzen merkatua bultzatu...

### 6. BIRZIKLAPEN-TASA GEHITU

**Azalpena:** Birziklatzearen garrantziaz kontzientziatu eta helburua zehaztu.

**Ekintza posibelak:** mankomunitatearen rola ezagutu, plastikoaren erabilera murrizteko alternatibak eman, auzokondepostea egitasmoak, olio eta pilak batzeko sistema hobetu...

### 7. ELIKADURA BURUJABETZA SUSTATU

**Azalpena:** Herrian elikagaien ekoizpena eta berauen kontsumoa bultzatu.

**Ekintza posibelak:** herri/eskola baratzak sortu, nekazaritza mahaia, herriko merkatariak herriko produktuak saltzea, jantokiak ekologiko bihurtzea, kontsumo taldeak...



*Domentx Uzin*



## Naturarekiko errespetua

Soraluzetar ugari batu gara Alkarrekin. Herriaz berba egin dugu, goetak piztu dira, eta garrantzitsuenak, proiektuak martxan ipintzeko herritarrek partehartzaile aktibo bihurtuko gara. Ekimen bikaina. Zorionak!

Gai asko izan ditugu ahotan, eta eztabaida mamitsuak sortu dira gure artean: inguratzen gaituzten mendiak, mendi-bideak, mendigaineko biodibertsitatea, geologia... Hor dago Ibaia ere, nahiz eta batzuetan ez konturatu, berarekin geneukan harreman zuzena galdu dugulako.

Efizientzia energetikoa ere landu dugu. Nondik dator gurera hainbeste gailu martxan jartzen dituen elektrizitatea? Sologoengo zentralak zenbat argindar sortzen du? Paseoko Led bonbilak zenbat euro aurrezten dituzte? zenbat euro aurrezten ditut autobusez bidaiatuta?

Eta hondakinak? nora doaz? non piltzen dira? inguruko herriaren bateko mendiko zaborategira doaz denak nahastuta, hango usainak, plagak, ur kontaminatuak, karioak hegaka... Nork nahi du bere herrian horrelako bat? Badira bilketa selektibo bikainak, emaitza ez-inhobeak eman dituztenak, eta horren aurrean... erdipurdiko emaitzak dituztenak aukeratu behar. Eta gainera galdetu Mankomunitateari Soraluzeko zaborren berri... eta ezin erantzunik jaso. Irtenbidea ez da, inolaz ere, eskoria eta errauts toxikoez gain, atmosfera eta gure biriketan minbizia sortzen duen errauskailua.

Ingurumenarekin dugun harremana uste baino estuagoa da, konturatu gaitzen. Hasi gaitzen norberaren ahalegin txikitatik Soraluzeko ingurumena zaintzen, erosten dugunaz, jaten dugunaz, sortzen dugun zaborraz arduratzen, eta boterean daudenen interes diruzaleak salatzen.

Zurumurua dabil krisia dela eta batek baino gehiagok etxean edo lanean pasatuko dituela udako oporrak. Oporrak non pasatuko dituen galdetu diogu jendeari.

## Non pasatuko dituzu udako oporrak?



Kristina Laskurain

Guk abuztuan Riojako San Asensio herrira joateko asmoa daukagu. Hamabost egun pasatuko ditugu bertan, bikotearen gurasoek bertan duten etxean. Biok lan egin behar dugu abuztuan baina atsedenerako tarte bat hartuko dugu.



Kontxi Eguren

San Inazio egunetik aurrera Donostiara joango gara hamabost bat egun pasatzera. Lehen Cambrilsera joaten ginen baina Donostian temperatura hobe egiten du. Jubilatuta gaude eta tokatzen zaigu deskantsua hartzea.



Jº Luis Azkorbebeitia

Ni banao eta bizkor gainera. Alicanter joan izan gara hogeitamar urte baino gehiagotan eta aurten ere haraxe joango gara. Hiru aste egingo ditugu bertan daukagun apartamentuan eta aspertutakoan etxera.




Anibal Movilla

Nik lan egin beharko dut abuztuaren 9ra arte baina gero Galiziara joango gara. Familia daukat han eta bertan pasatuko ditugu aste batzuk. Berrogei urte baino gehiago dira bertara joaten naizela udan.

## Lehiaketa

Zein da?



**Saria:**  
Armendin birentzako eguneko menua.

**Aurreko aleko erantzuna**

Oihana Uribe, Mendata tabernako arduraduna.

**Irabazlea**



Isa Camacho.

Oharra: Lehiaketako irabazlea aukeratzeko zozketia alia etara eta hurrengo barixaku eguerdixan egitten da.

Deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu **aldizkaria@pilpilean.com** datorren **barixaku eguerdia** baino lehen.



### Jon Varelak irabazi du udako frontenis txapelketa

Uztailaren 6an eta 7an jokatu zen txapelketa, eskolako goiko frontoian. Ion Varelak 25-17 irabazi zion Eneko Agirrebeitia berriztarrari eta txapela jantzi zuen lehenengoz. 24 parte hartzaile izan dira aurtengo udako edizioan.



### Bihar jokatu dira futbito eta pelota txapelketako finalak

Herriko futbolarien txapelketa bere amaieran da. Final laurdenetarako Roketxe, Fronton Team, Kastakuak eta Malas Hierbas taldeak sailkatu ziren eta partidu borrokatuen ostean, Roketxek eta Kastakuak lortu dute finalerako pasea. Bihar lehiatuko dira, 11:00etan Ezoziko futbol zelaian. Asier eta Iñakiren omenezko pelota txapelketak, bestetik, XII. edizioa bete du aurten eta biharko zehaztu dute, baita ere, txapelketako finala. Finalerdietan Pontxi eta Varela 22-20 gailendu zitzaizkien Gallastegi eta Arrillagari eta zuzenean sailkatu dira finalerako. Unanue eta Ariznabarretaren kontra neurtuko dituzte indarrak bihar, 22:00etan Arane kiroldegian.

### Soraluze Saria abuztuaren 6an

Jubenil eta 2. urteko kadete mailako txirrindulari gazteek abuztuaren 6an jokatu dute Soralezeko LXVI. Saria. Parte hartzaileak goizeko 10:00etan Estaziño kaletik abiatuko dira eta froga, 12:30ak aldeara bukatuko da San Andres auzoan.

## 169 lagunek parte hartu dute II. Iñaki Ruiz Mendi Lasterketa

iturria: Aitziber Mayo

Parte hartze zabala izan du, aurten ere, Iñaki Ruizen omenezko lasterketaren bigarren edizioak. Guztira, 169 korrikalarik lortu zuten froga amaitzea, tartean 22 soraluzetar izan ziren, denak gizonetzkoak. Oier Ariznabarreta durangarra izan zen bizkorrena 21 kilometroko ibilaldia burutzen, 01:35:32ko denborarekin. Emakumeei dagokionez 18 izan ziren parte hartzaileak eta horietan azkarrena Arantzazu Perez de Arenaza gasteiztarra izan zen, 02:07:22ko denbora eginda. Pablo Galarraga izan zen bestetik, helmugara iristen lehen soraluzetarra, 02:02:36ko denboran. Bere atzetik sailkatu ziren Juan Arsenio Izagirre eta Gorka Tornos. Iaz egin zuten moduan, datorren astetik aurrera lasterketan jasotako argazkiak salgai jarriko ditu Kontrargik.



Sarituak, udaleko eta mendi taldeko ordezkariekin.

Irudiak, plaentxia.com-en bitartez ikus daitezke. Jasotako dirua, datorren urteko edizio antolatzeko erabiliko dute.

## Ainara Muga eta Ainara Ladron palan txapeldun

Zortzigarren edizioa bete du aurten Torturaren Aurkako Emakumeen Pala Txapelketak eta final handia aurreko zapatuan jokatu zuten, San Andres auzoko jaietan. Txapela Ainara Muga eta Ainara Ladronen irabazi dute, 30-26 Amaia Ariznabarreta eta Ainhoa Izagirre-

ri irabazita. 3. eta 4. postuak ere jokatu zituzten eta kasu honetan, Naiara Kortabarria eta Nere Aranberri 30-13 gailendu zitzaizkien Juana Mari eta Regina Maiztegiri. Finalaren ostean, azken urteotan txapelketan parte hartutako hogeitabateko palariak afaria egin zuten Txurrukan.



iturria: Iñaki Amuategi

Azken urteotan txapelketan parte hartu duten emakume palariak.

**Javier Alberdi**

Baimendutako harategia  
**Euskal Okela**  
Carniceria autorizada

Errebal kalea, 24 • Tel. 943 75 19 32 • Soraluze

Javier Alonso Zelaia  
MEDIKU ESTOMATOLOGOA  
K.Z. 20.000.434

**HORTZ KLINIKA**

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

## Gaztetxokoko gazteek jaurtiko dute jaietako txupina

Uztailaren 24an, arratsaldeko 20:00etan jaurtiko da jaiei hasiera emango dien txupina. Aurtengo berritasunen artean,



Oñatiko eta herriko gazteen arteko desafioa, eta lehenengo aldiz, herriko gaiteroekin osatuta egingo den kalejira aipatu daitezke. Nabarmentzekoa da izango den herri-bazkari kopurua ere: gazte bazkaria 24an, herri bazkaria 25ean eta Herriak antolatutakoa 26an. Txapelketaz ere ondo kargatua dator egitaraua; mus eta tute txapelketa, herri mailako bakailau lehiaketa, azeituna hezurren jaurtiketa, jaurtiketa libreen txapelketa, bertso desafioa eta futbolin txapelketa antolatu dira. Kale ikuskizunen artean, "Arkakusoaren zirkoa", dantzarien kalejira eta "Sokole" perkusio emanaldia dira aipagarrienak. Apar festak, danborradek eta zezenak osatuko dute egitaraua. Elkartasun ekimenak ere ez dira faltako Herriak eta Gaztetxeak antolatuta.

### Gau giro bariatua

Musikari dagokionez, 24an herriko musikarien emanaldiak izango dira txosnagunean eta Plaza Zaharrea. Hurrengo egunetan, erromeria taldea, mariatxiak, djak, hip hopa, funkya, musika elektronikoa... izango da entzungai. Egitarau osoa:



## Giro ona eta jende asko San Andresen



Iturria: Carlos De Cos

Eguraldia lagun jende asko izan da aurtengo San Andresko jaietan. Zapatuan, San Andres gertatu zen garaile Txurrukarekiko desafioan eta dantza-giro ederra izan zen goizaldera arte. Domekan ehunka lagun batu ziren Iñaki Ruizen omenezko lasterketara, eta baita arratsaldeko harrijasotzaileen eta bolarien txapelketara ere. Astelehenean auzokoen eguna izan zen, eta hirurogeiren bat lagun batu ziren bazkari eta afaritara.

**Abesbatzaren kontzertua bihar**  
Ezoziko Ama abesbatzak hamalau abestiz osatutako kantaldia eskainiko du bihar, 20:00etan Zinean. Kantaldi berezia izango da, besteak beste, abesbatzako kideak ez ezik bakarlari eta txistulariak ere arituko direlako. Emanaldiaren lehenengo zatian euskal kantak nagusituko dira; "Ama" edo "Eskualdunak" esaterako eta jarraian, kantu klasikoagoei egingo diete tarte "En mi viejo San Juan", "Alfonsina y el mar"... Zarzuela zati bat eta kantu italiar batek osatzen dute erreperorioa.

**Pregoaia eta jai nagusien egoitzan**  
Santiago – Santa Ana jaiak bete-betean ospatuko dituzte aurten Mese-deetako Amaren egoitzan. Egitarau propioa antolatu dute eta herritarrei jaiarekin bat egitera gonbidatu nahi diete. Pregoaia eta txupinazioaren ostetik Galtzagorrien kalejira, "kasetaren" inaugurazioa, afari meriendak, buruhandiak, herri kirolak, danborrada, dultzaineroak, antzerkia, karaokea, dantzaldia, trikitaliak eta afari sorpresak izango dituzte, besteak beste, lau egunetako gozagarri.



**Luncha eta musika Irureko jaietan**  
Abuztuaren 4an, 12:30ean egingo den mezarekin ekingo diote Irure auzoko eguna ospatzeari eta jarraian, lunch berezia eskainiko dute bertaraten direnentzat. Herriko musikariek bazkarietako tarte girotuko dute gainera.

**JUAN MARI**  
ARRAINDEGIA  
943 75 24 40  
MERCATU PLAZA  
ESKERIK ASKO PLENTXISTEARRI  
GUREN ETXETAN KONPLERTZEGOTKI

**KM Desing**  
Diseinua eta Formena  
Poligono Amillaga, nº 5  
Tlf.: 943 76 99 85  
20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak



## Zorion agurrak



**Zuriñe R. Larrañaga**  
Abuztuan 19xan 3urte  
Zorionak printzesa! Muxu haundi bat etxeko danon partez



**Eñaut Ibarzabal**  
Abuztuan 7xan 3 urte!  
Zorionak familia guztixan partez eta muxu potolo bat!



**Maribi polittori!!**  
Merezitako urte eder-ederra izan dezazula eta muxu haundi-haundi bat, Pil-eko lagunen partetik!



**Iraitz Plata**  
Uztailan 13an 5 urte!  
Zorionak mutil-haundi eta patxo potolo bat.



**Zorionak Laida!!**  
Uztailan 21an 2 urte!  
Mila muxu polittori, etxekuen partetik!



**Zorionak Ariiiii**  
asko asko asko zarelako guretat, muxu haundi bat. Edarra izan da, edarra izango da.



**Unax eta Aimar Igartua**  
Uztailan 5ian urtebete!  
Zorionak eta muxu haundi bat aitaxo eta amatxon partez



**Iker Criado eta Gorka Rascón**  
Uztailan 16xan eta abuztuan 6xan 6 eta 5 urte betetzen ditzuzelako, zorionak polittak eta muxu haundi bat etxekuen partez!



**Nagore eta Jon Caballero**  
Maiatzan 30ian eta uztailan 15ian 6 eta 9 urte!  
Zorionak gure txikixei! Muxu haundi-haundi bat, etxeko guztien partez eta oso ondo pasatu oporrak!




**Javi eta Izaro**  
Uztailan 22 eta 23an  
Zorionak bikote eta muxu haundi bat etxekuen partez!


## Jaiotakoak eta hildakoak



**Joar Alustiza De Castro**  
**Unax Quintana Fernandez**  
**Jon Ruiz Garcia**



**Maria Caridad Bereicua Basauri**  
**Tomas Larreategi Arenaza**



**LURDES ARIZNABARRETA**  
2011KO UZTAILAREN 23AN HIL ZEN  
II. URTEURRENA

*"Senide eta gertuko izango gara lekuko zure lorea gugan bizi da ez da inoiz ximelduko"*

Etxekoak

**TALLERES M.A.H., S.L.**



**FABRICACION DE PIEZAS DE DECOLETAJE**

Teléfono 943 75 30 22 - Fax 943 75 30 88  
Pol. Ind. Mendiola 14 - Nave 3 - 20590 SORALUZE  
Apartado 23 - 20590 SORALUZE



**Mendata**

**Giro euskalduna**  
Etxean egindako pizzak eta txipirotak



## Plaza Zaharrean San Roke Txiki egunez

Erretratu hau 1958ko abuztuaren 17an jasota dago, San Roke Txiki eguneko kalejiran. Gabolats kaletik zetorren txarangarekin bat egin zuten erretratuan agertzen diren ume,

gazte eta helduek eta musikaren erritmora dantzatzuz ospatu zuten jai egun handia.

**Argazkian, ezkerretik eskumara, goian:**

Francisco Javier Martinez, ezezaguna, ezezaguna, Jose Luis Elorrio "Pope" †, Mariasun Garcia umearekin, Olvidio Cano †, ezezaguna eta ezezaguna.

**Atzekaldean, bestek beste,** Fausto Aristi †, Juan Luis Ibarzabal eta Carlos Galarraga.



**MIGUEL DE LA CRUZ (INDIO)**

2011KO UZTAILAREN 29AN ZENDU ZEN.  
II. URTEURRENA

*Zinen bezalakoa zinelako  
biziko zara beti gure gogoan.  
Maitasun muxuak zuretzat.*

Emaztea eta familia



**XOLE AZKUE FERNANDEZ**

(ANTONIO NARBAIZA MUGERZAREN ALARGUNA)  
2013KO UZTAILAREN 3AN HILZEN, 92 URTE ZITUELA.

*Ez al hator, Xole?  
Eztekinat ba, ura ziharo hotza zegon.  
Ur epelen zain geratuko naun  
kantauri zaharrari begira.*

Sendiaren partetik eskerrak zuen dolumina adierazi diguzuen guztioi.

## 2 eta 3 LOGELAKO ETXEBIZITZAK GARAGEAK ETA LOKALAK



%100 FINANTZAKETA  
140.000 €-tik



**943 12 13 95**


[www.aukera-inmobiliaria.com](http://www.aukera-inmobiliaria.com)

140.000 €ko kreditu batekin, 628,60 €ko hilero kuota finkoa lehenengo bost urteetan.



**SORALUCE**

# SORALUCEK jai zoriontsuak opa dizkizue



**DANOBATGROUP**

	MONERGAON
HUMANITY INDUSTRY AT WORK	Finance Industry Knowledge